



Gipuzkoako Ur Kantsortzioa
Gipuzkoako Urak

AENOR	AENOR	AENOR
GESTIÓN AMBIENTAL	GESTIÓN DE LA CALIDAD	SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO
ISO 14001	ISO 9001	ISO 45001

BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA,
PROIEKTU HONETAKO OBRAK KONTRATATZEKO

PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO – ADMINISTRATIVAS
PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DEL
PROYECTO

BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA, PROIEKTU HONETAKO OBRAK KONTRATATZEKO

ARABA KALEKO 5.EAN SANEAMENDUA ALDATZEA

ZARAUTZ

1. KONTRATUAREN XEDEA

Araba kalearen eta Altzola kalearen artean geratzen den Martiñene plazan, Zarautz-ko udalak egitea aurreikusten duen lanen harira, gaur egun bertan aurkitzen den eta egoera txarrean dagoen sare unitarioa banatzea aurreikusten da isurketa ezberdinen arabera. Era honetan, bereizitako sare bat lortzeaz gain, egun izan daitezkeen filtrazioak saihestea lortuko litzateke.

2. DOKUMENTAZIOA

1. KONTRATUKO AGIRIAK

Ondorengo agiri hauek kontratukoak dira eta proiektuan daude:

Baldintza ekonomiko-administratiboen Agiria

Preskripzio teknikoen Agiria

1_ MEMORIA_

- 1. ERANSKINA - EBSyS*
- 2. ERANSKINA_SSAA*
- 3. ERANSKINA_EGR*

2_ PLANOAK

3_ BTAA

AT 2020 - 8 ARG Eusk.pdf

RT 2020 - EDIC 8ª cast.pdf

4_ AURREKONTUA

Prezioen_Oinarria_GUK

2. KONTRATUKO BALDINTZA BEREZIAK

A. HOMOLOGAZIOA eta ITUNAK

Behin betiko adjudikatu aurretik, kontratista bera homologatu beharko da Gipuzkoako Urak, SA (aurrerantzean, GUSA) sozietatearen irizpideen arabera, eta konpromiso gutuna sinatu beharko da gai hauen inguruan:

- **PERTSONALAREN PRESTAKUNTZA.**
- Indarrean dagoen **Gipuzkoako ERAIKUNTZA ETA OBRA PUBLIKOEN HITZARMEN KOLEKTIBOA** betetzea edo esleipendunak adierazitako enpresa hitzarmena, azke horrek aipatutako Gipuzkoako hitzarmenekoak baino baldintza hobeak baldin baditu.
- **GARDENTASUN INSTITUZIONALA** obra guztiz lizitatu, adjudikatu, egikaritu eta amaitzen den arteko prozesuari lotu dakizkiokeen datuentzat.

B. ORDAINKETAK

Obra unitateak ordaintzerakoan, kontuan izango dira guztiz egikarituta dauden obra unitateen inguruan formalizatutako neurketak eta adjudikazio prezioa.

Proiektuan aurreikusi gabeko unitate kontzeptuei **Agiri honi erantsitako «prezioen oinarria»** atalean dauden prezioak aplikatuko zaizkie, hala badagokio, lizitatutako adjudikazioko beherakadekin; bestela, USTEKABEKOAK eta KONTZEPTU BERRIAK egonez gero, modu kontrajarrian eta negoziatuan zehaztuko dira gauzatu aurretik.

Ordainketak gauzatutako obren hileroko ziurtagiri partzialen bidez egingo dira eta, likidaziorako, likidatzea aurreikusitako zenbatekoaren %30a baino gehiago utziko da.

C. EPEAK

Obrak hasiko dira adjudikazioa komunikatu eta 30 egun naturaletara eta amituko dira eskaintzan ipinitako egikaritze epearen barruan. Epea betetzen ez bada, zigor ekonomikoa ezarriko da eta zigorra kontuan izango da gero gainerako adjudikazioetan.

D. LAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Segurtasun Planak eta aplikatu beharreko ARAUDIAK xedatzen dituen neurriak bete beharko dira, bereziki tresna hauetan aipatzen direnak:

- Obra bakoitzaren jarraipenerako KONTROL ZERRENDAn (zigor ekonomikoak helburuak, bete ezean).
- KOORDINATUn, obra gauzatzen ari diren pertsoneri.

E. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Kontratistak bi arau hauetako printzipioak eta betebeharrak konplitu beharko ditu: martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzekoa.

F. HONDAKINEN KUDEAKETA

Aplikatu beharreko ARAUDIAK xedatutako neurriak betetzen direla zaindu beharko da, bereziki tresna honetan aipatzen direnak:

- Obra bakoitzaren jarraipena egiteko KONTROL ZERRENDAn.

Kontratu hau sinatzeak esan nahi du esleipendunak bere adostasuna eta onespena ematen diela kontratuko eta horrekin batera doazen gainerako dokumentuetako baldintzei.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua da 78.076,12 € Prezioan, kontzeptu guztiak sartuta daude, baita Balio Erantsiaren gaineko Zerga ere.

Kontratuaren balio zenbatetsia da 64.525,72 euro (BEZa kanpo), sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 101. artikulua xedatzen duen moduan eta ondorioetarako kalkulatuta. Legearen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauen transposizioa egin zen espainiar ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL).

4. GAITASUN EKONOMIKO NAHIKOA

Gipuzkoako Urak, SA sozietateak gaitasun ekonomiko nahikoa dauka dagokion gastua bere gain hatzeko.

5. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko zaio kalitate-prezio erlazio onena aurkezten duen lizitatzailari, Agiri honetan eskaintzak baloratzeko aurreikusten diren irizpideen arabera.

6. EGIKARITZEKO EPEA

Obrak egikaritzeko, epe hau egongo da: 6 ASTE.

Epea hasiko da zuinketaren egiaztapenaren aktan finkatzen den egunetik.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatzaille bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da egon, ezta ere, aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuak izango berak sinatutako proposamen guztiak, eta ezta bera parte den proposamenak ere.

Kontratuari dagokion lizitazioan Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak aurrerago zehaztuko den moduan, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, beren kaudimen finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute eta APKLeko 71. artikulua xedatzen dituen kontratatzeke debekurik ez badute.

Proposamena aurkezteak esan nahi du lizitatuzaileak argi eta garbi eta inolako salbuespenik gabe onartzen dituela Agiri honetako eta kontratuari buruzko gainerako agirietako klausulak; horrez gain, aurkeztutako datuak zehatzak direla eta obra kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak eta bakloitzak betetzen direla dioen erantzukizunpeko adierazpenaren balioa dauka.

8. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA, EPEA ETA MODUA

• PROPOSAMENAK AUERKEZTEKO LEKUA

Proposamena web orriaren bidez aurkeztu beharko da: <https://licitaciones.gipuzkoakour.eus/Identity/Account/Login> . Horretarako, sarbide gakoak lortu beharko dira.

Dokumentazioa eskuratzeko, sartu hemen <https://licitaciones.gipuzkoakour.eus/Obras/Publicadas> eta sakatu “dokumentazioa eskatu” botoia.

"ALDEZ AURREKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO ETA FORMULEN APLIKAZIO HUTSEZ EBALUAGARRIAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatuzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Aldez aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeke dokumentazioa (Gutzun-azal A)

- Erantzukizunpeko adierazpena, Agiri honen **I. eranskin**eko ereduaren arabera.
- Lizitazioari aldi baterako elkarte bat eginez aurkeztu nahi duten enpresariak partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzak zenbateko partaidetza duen ere. Gainera, kontratua adjudikatzen bazaie, orobat adierazi beharko dute aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela. Aldi baterako elkartuta lehiatzen diren enpresariak betebeharrak solidarioa hartuko dute, eta enpresarien elkartearen izenean ordezkari edo

ahalordedun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko besteko ahalordeak izango dituen, kontratua amaitu arte. Hala ere, enpresek, kopuru handiak kobratu eta ordaintzeko, ahalorde mankomunatuak eman ahalko dituzte.

- Atzerriko enpresek Espainiako ordena guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, hala suertatuko balitz, lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egingo lioketela jakinaraziko dute bertan.
- Lizitatzailaren posta elektronikoko helbide bat, GUSAk jakinarazpenak eta komunikazioak lizitatzailari bidal diezazkion. Eredua **I. eranskinean** dago.

2. Formulen aplikazio hutsez ebaluagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa (Gutzun-azal C).

Lizitatzailerek ondorengo web orrian sartuta aurkeztu beharko dute formulen aplikazio hutsez ebaluagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa: <https://licitaciones.gipuzkoakour.eus/Identity/Account/Login>.

Proposamen ekonomikoa ez da lizitaziorako oinarritzko aurrekontua baino handiagoa izango.

• JARDUTEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek izango dute entitate kontratatzailearekin kontratatzeko gaitasuna, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuren batean ez badaude eta kaudimena egiaztatzen badute.

Lizitatzailerek, halaber, kontratuaren xede diren obrak egikaritzeko beharrezkoa den enpresa gaikuntza edo gaikuntza profesionala beharko dute, hala badagokio.

Lizitatzailerek inskribatuta egon beharko dute Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialean edo **Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean** eskaintzak aurkezteko azken egunean. Lizitatzaila aipatutako erregistroetan inskribatuta egon ez arren ere proposamena onartuko da, baldin eta hark egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera eta horretarako nahitaezko dokumentazioa aurkeztua duela eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehen.

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek edo Espainiakoak ez izanik Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu bateko enpresek entitate kontratatzailearekin kontratatzeko ahalmena izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako prestazioa gauzatzeko. SPKLko 67. artikulua aplikatuko da.

Estatu bateko legediak estatu horretan ezarrita dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie dena delako zerbitzu hori emateko, enpresek egiaztatu beharko dute betetzen dutela baldintza hori.

Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoei txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.

Prestazio hori emateko denbora baterako osatzen diren enpresarien elkarteek kontratuak egin ahalko dituzte sektore publikoarekin; ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte. SPKLko 69. artikulua aplikatuko da.

Ezingo da proposamenik aurkeztu beste lizitatzailerik batzuekin batera aldi baterako elkarte eginez, aurretik bakarka aurkeztu badu, eta ezingo da egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Printzipio hori hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Nolanahi ere, aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzaren ezaugarriak metatzeko eta, zehatzago esanda, enpresaren sailkapenerako, nahitaezkoa izango da kontratuaren lizitazioa aurkeztutako enpresa guztiek obra enpresaren sailkapena aurrez lortu izana, Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresen eta Espainiakoak ez izanik Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu bateko enpresen kasuan izan ezik, enpresa horiei, izan ere, aldi baterako elkartearen kaudimen zehatza baloratzeko, SPKLko 69.5 artikulua aplikatuko da.

Aldi baterako enpresa elkarteek, gutxienez ere, kontratua amaitzen den arte iraungo dute.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala

Lizitatzailleek gutxienezko kaudimen baldintza hauek izan beharko dituzte:

- Lizitatzailleak esperientzia egiaztatu beharko du antzeko obretan. Azken 5 urteetan eginiko bi obren erreferentziak aurkeztu beharko ditu gutxienez, hornidurarekin eta/edo saneamenduarekin lotutako obren erreferentziak hain zuzen, eta obra horien gauzatze materialaren zenbatekoak izan behar du lizitazioaren oinarritzko aurrekontua bider 0,5 egin eta atertzen den zenbatekoaren bezainbestekoa edo handiagoa.
 - Lizitatzailleek sailkapen agiri hau aurkeztuz egiaztatu ahal izango dute aurreko paragrafoan eskatutako kaudimena: E TALDEA: OBRA HIDRAULIKOAK, 1 AZPITALDEA eta Kategoria, gutxienez, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuari dagokiona.
- **ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA**

Aurkezteko modua: Eskaintzak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, GUSAREN kontratatzailearen profilaren bidez:

<https://licitaciones.gipuzkoakour.eus/Obrak/Argitaratuak>

Aurkezteko epea: 2024-10-23 10:00 arte

9. PROPOSAMAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

GUSAK aurrez kalifikatuko du alde aurreko baldintzen dokumentazioa, gutun-azal 'bakarrean' garai eta modu egokian aurkeztua. Entitate kontratatzaileak aurkeztutako dokumentazioan zuzentzekoak diren akatsak ikusten baditu, hiru egun emango dizkio enpresariari haiek zuzen ditzan.

Jarraian, eskaintza formulen aplikazio hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera aztertu eta baloratuko du eta garrantziaren arabera zerrendatuko ditu formulak, garrantzitsuenetik hasita (eskaintza onena lehen tokian), ondorengo adjudikazio irizpideen arabera:

- **Proposamen ekonomikoa: 95 puntu gehienez.**

Eskaintza ekonomikoarentzako puntuak formula hau aplikatuz emango dira:

$$P = 95 \times \frac{\text{oferta mínima}}{\text{oferta licitador}}$$

Non:

P= baloratu den lizitazailleak lortutako puntuazioa.

Gutxienerako eskaintza = onartutako eskaintzarik txikienaren zenbatekoa (BEZa kanpo).

Lizitazaillearen eskaintza = baloratu den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa (BEZa kanpo).

Proposamen bat ezohikoa edo itxuragabea jotzen bada, aurkeztu duen lizitazailleari entzuna izateko aukera eman beharko zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatu eta horren baldintzak zehatz ditzan.

Eskaintza bat itxuragabetzat edo ezohikotzat hartuko da aurkeztutako proposamen guztien batez besteko aritmetikoa baino ehuneko 20 unitate txikiagoa bada.

Dena den, kontratazio organoak baztertu egingo ditu eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badu nabarmenki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo aplikatzekoak diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, naziokoak nahiz nazioartekoak, urratzen dituelako, horren barnean dela hitzarmen kolektibo sektorial indardunak urratzea.

- **Irizpidea berdintasunaren arloan: 5 puntu gehienez**

Gehienez ere 5 puntu emango zaizkio berdintasunaren inguruko konpromisoari, esan nahi baita, kontratua egikaritzeko duten pertsonak berdintasunaren inguruko prestakuntza azken 12 hilabeteetan jasota izatea edo kontratua egikaritzen ari diren denboran jasoko dutela agintzea. Prestakuntzak 2 ordukoa izan behar du, gutxienez.

Konpromiso hori egiaztatze aldera, hala badagokio, kontratistak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, enpresak edo prestakuntza eman duen pertsonak emanda, kontratua betetzen ari den denboran zehar. Ziurtagirian agertu beharko du prestakuntza eman duen pertsonaren titulua eta prestakuntzaren edukiak, iraupena eta parte hartu duten pertsonen izenen zerrenda (hala badagokio, zigorra ezarriko da, adjudikazio aurrekontuaren %2aren parekoa, Agiri honetako 23. klausulan adierazi moduan).

GUSAko teknikariek proposamenak ebaluatuko dituzte 9. klausula honetan ezarritako adjudikazio irizpideen arabera eta adjudikazio proposamen arrazoitua Kontratazio Organoari igorriko diote.

10. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Kontratazio Organoak proposamena onartu eta gero, entitate kontratatzaileak ondorengo dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailari eta, horretarako, zazpi egun balioduneko epea emango dio, lizitatzailak errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita. Hau da dokumentazioa:

10.1 Justifikazio agiriak, egiaztatzeko eskaintzak aurkeztutako egunean betetzen dituela entitate kontratatzailearekin kontratatzeko legeriak eskatzen dituen baldintza guztiak, jarduteko eta kaudimen baldintza guztiak eta ez dagoela Agiri honetako 8.2 klausulak xedatzen dituen kontratatzeko debekuetan, ondoren azalduko den moduan.

Enpresariak aldi baterako elkartean lehiatzeko asmoa izan eta proposamena elkarte moduan aurkeztu badute, dokumentazio hori elkartea osatzen duten enpresari guztiek aurkeztu beharko dute.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialaren edo Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiriaren kopia, erregistroko organo arduradunak emana, enpresa erregistro horretan inskribatuta dagoela ziurtatzen duena; ziurtagiriak indarrean egon beharko du eskaintzak aurkezteko azken egunean. Ziurtagiriaren kopia horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, lizitatzailak sinatua, adieraziz ez direla aldatu agirian agertzen diren inguruabarrak.

Kontratazio Organoak ziurtagiri hori doan eskura baldin badezake, lizitatzaila ez dago behartuta aipatutako ziurtagiriaren kopia aurkeztera; horretaz errekerimenduan ohartaraziko da.

Ziurtagiriaren kopia eduki ezean, inskripzio eskaera egin izanaren agiria aurkeztu beharko du lizitatzailak, dagokion erregistroak emana, eta baita erantzukizunpeko adierazpen bat ere, adieraziz aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu duela eta ez duela zuzentzeko errekerimendurik jaso.

- Lizitatzailaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, egonez gero, haren ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, baldin eta informazio hori aurreko (i) letran adierazitako ziurtagirian agertzen ez bada:
 - Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna eratze aktaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze egintzaren bidez egiaztatuko da; betiere, haien jarduera arautzeko arauak agiri horietan egon beharko dira jasota. Eta pertsona juridiko horiek pertsona juridikoaren motaren arabera

- dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egon beharko dira, hala badagokie.
- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatuetao edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetao herritarrak direnean, haiek ezarrita dauden estatuetao legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda egiaztatuko da, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat erregelamenduz ezarritakoaren arabera aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.
 - Atzerriko gainerako enpresariak jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiak bere estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde eremuari dagokion Kontsuletxeko Bulegoaren txostena erakutsita. Txostenaren bidez, enpresek justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen dituela Espainiako enpresen parte-hartzea eta kontratazioa administrazioarekin eta sektore publikoko ente, organismo edo entitateekin, betiere administrazio, ente, organismo eta entitate horiek SPKLko 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean.
 - Pertsona fisiko diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da, edo dagokion estatuan baliokidea den agiria.
 - Proposamenak beste norbaiten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute, eta baita horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatutakoa beharko du izan, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduko 94. artikuluaen arabera, edo, bestela, dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.
- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten agiriak edo, hala badagokio, Agiri honetako 12. klausulan eskatzen den sailkapena, informazio hori lizitatzaileren Erregistroan ez badago.
 - Kaudimen teknikoa edo profesionala. Azken bost urteetan egindako obren zerrendaren bidez egiaztatuko da, haiek ondo egin izanaren ziurtagiriek batera. Ziurtagiri horietan honako hauek adieraziko dira: obren zenbatekoa, noiz egin diren eta non egin diren. Halaber, lanbideko arauen arabera egin diren zehaztuko da, eta ea ondo bukatu diren.
 - Sailkapena. Hala eskatuz gero, sailkapena egiaztatzeko, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko da, lizitatzaileren erantzukizunpeko adierazpen batekin batera, hain zuzen ere sailkapena indarrean dagoela eta ziurtagirian agertzen diren inguruabarrak ez direla aldatu dioen adierazpenarekin batera. Adierazpen hori berriro egin beharko da kontratua

formalizatzeko dokumentuan. Ziurtagiriak egiaztatu beharko du lizitatzailleak Agirian eskatzen den taldean eta azpitaldean edo handiagoetan dagoela.

- Lekukotza judiziala edo administrazio ziurtagiria, non adierazten den lizitatzaillea ez dagoela SPKLko 71. artikulua kontratatzeke xedatzen dituen inolako debekutan, betiere informazio hori lizitatzaileren Erregistroan agertzen ez bada.

Agiri hori agintaritza eskudunak ematerik ez badauka, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da, administrazio agintaritza batek, notario publiko batek edo organismo profesional kualifikatu batek emandako adierazpena betiere.

10.2 Behin betiko bermearen egiaztagiria, Agiri honetako 11. klausulan eskatzen bada.

Entitate kontratatzaileak eskubidea izango du bidezkoak iruditzen zaizkion egiaztatzeak egiteko edo beharrezkoa iruditzen zaion dokumentazio gehigarria eskatzeko, lizitatzailleek aurkeztutako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeke.

Entitate kontratatzaileak, aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak daudela ikusten badu, hiru egun naturaleko epea eman diezaike lizitatzaileri, zuzendu ditzan.

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada edo dokumentazioak zuzentzeko modukoak ez diren akatsak edo hutsuneak baditu, ulertuko da lizitatzailleak erretiratu egin duela bere eskaintza, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3a (BEZa kanpo) eskatuko dio lizitatzaileri zigor moduan eta dokumentazio bera eskatuko dio hurrengo lizitatzaileri, eskaintzen sailkapenean geratu diren ordenaren arabera.

Kontratazio Organoak bost egun balioduneko epe barruan adjudikatuko du kontratua, aipatutako dokumentazioa jasotzen denetik hasita, eta gehienez ere bi hilabeteko epean, proposamenak irekitzen direnetik hasita.

Kontratazio Organoak arrazoitutako erabaki bidez adjudikatuko du kontratua eta erabakia hautagaiei eta lizitatzailerei jakinaraziko zaie haiek jakinarazpenak jasotzeko izendatutako bidetik, eta adjudikazioa entitate kontratatzaileak duen kontratatzailearen profileen argitaratuko da 15 egun naturaleko epean.

10.3 Hitzarmen kolektiboa, lizitatzailleak kontratuaren xede den jarduera gauzatuko duten bere langileei edo azpikontratutako langileei aplikatuko zaiena.

11. BERMEA JARTZEA

Obren balio zenbatetsia 40.000 euro baino handiagoa bada, eskaintza onena aurkezten dutenek adjudikazio aurrekontuaren %5eko bermea (BEZa kanpo) jarri beharko dute, 7 egun balioduneko epean, horretarako errekerimendua jasotzen dutenetik hasita.

Bermea modu hauetako batean eratu ahalko da:

- Dirutan edo Zor Publikoko balioetan, betiere modu bakoitzean bete beharreko arauzko baldintzak betez. Eskudirutan jarritakoa eta idatzitako balien ibilgetze ziurtagiriak Sozietatearen Diruzaintzan jasoko dira.
- Abalaren bidez. Abal bidez jartzen bada, abalak arauzko baldintzen eta moduen arabera egingo dira eta Estatuan jarduteko baimena duten banketxe, aurrezki kutxa, maileguren finantza entitate eta elkar bermatzeko sozietateetakoren batek emandakoa izan beharko dute. Abal eredia Agiri honen II. Eranskinean dago.
- Kauzio aseguruako kontratu baten bidez. Kauzio aseguruako kontratu baten bidez jartzen bada, kontratuak arauzko baldintzen eta moduen arabera formalizatuko dira eta kauzio arloan jarduteko baimena duen aseguru entitatearen batekin formalizatu beharko dira. Kontratu eredia Agiri honen III. Eranskinean dago.

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, bermea elkarteko enpresa batek edo hainbatek jar dezake. Jarritako bermeak, guztira, eskatzen den kopurura iritsi behar du eta elkarteko kide guztiei solidarioki bermatu behar die.

Bermea kontratista ez den pertsona edo entitate batek jartzen badu kontratistaren alde, SPKLko 112. artikulua xedatutakoa aplikatuko zaio halako bermeari.

12. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Kontratua formalizatzeko, hamabost egun balioduneko epea egongo da gehienez, adjudikazioa lizitatzaleei eta hautagaiei jakinarazten zaien egunaren biharamunetik hasita.

Kontratuarekin batera preskripzio teknikoan Agiria eta/edo proiektua sinatu beharko du esleipendunak, eta, egonez gero, baita kontratuari buruzko dokumentazio guztia ere; hori guztia kontratuaren zati izango da.

13. ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN INGURUKO BETEBEHARRAK

- Aplikatzekoa den araudiak xedatutako betebeharez gain, obrak gauzatuko dituen pertsona fisikoak edo juridikoak plan bat aurkeztu beharko dio obraren jabeari, obrei ekin aurretik; hain zuzen ere, obran sortuko diren eraikuntza eta eraispén hondakinen inguruan dagozkion betebeharrekin nola konplutuko duen azalduko

dioen plana, bereziki eraikuntza eta eraispén hondakinei buruzko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuko 4.1 eta 5. artikuluetako betebeharrak nola beteko dituen azalduko dioena.

- Plana, zuzendaritza fakultatiboak onetsi eta jabeak onartu ondoren, obraren inguruko kontratuari buruzko dokumentazioaren zati izango da.
- Betebehar hauek betetzen ez badira, zigorra ezarriko da, SPKLko 192. artikulua xedatutako zigorra hain zuzen, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez emateagatik.
- Prestazioa behar bezala ez betetzearen larritasunaren arabera izango da zigorra, proportzionaltasun irizpidearen arabera alegia.

14. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERTINTASUNERAKO BALDINTZAK

Kontratatistak bermatuko du ez dela hizkuntza sexistarik erabiliko kontratua betetzeak erabiliko den dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan, emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak saihestuko direla eta balio hauetan oinarritutako irudia sustatuko duela: berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna eta rolen eta genero identitateen aniztasuna.

Legeriak xedatzen dituen printzipio eta betebeharrekin konplitu beharko du kontratatistak, hain zuzen ere martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzekoa.

Enpresa kontratatzaileak, 50 langile baino gehiago baldin baditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat daukala justifikatu beharko du, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eskatutako edukia duen plana alegia.

15. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA PRESTATZEA

Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanarekin edo, bestela, Proiektuan dagoen oinarritzko azterlanarekin konplitze aldera, espresa esleipendunak laneko segurtasun eta osasun plan bat prestatuko du; horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, Kontratazio Organoak adjudikazioa kontratatzailearen profileen argitaratzen duen egunaren biharamunetik hasita. Plan horren bidez, segurtasunari eta osasunari buruzko azterlaneko edo oinarritzko azterlaneko aurreikuspenak aztertu, ikertu, garatu eta osatuko dira; azterlan bat edo bestea erabiliko da, obrak egikartzeko duen sistema zein den. Plan horretan, kontratatistak proposa litzakeen prebentzio neurri alternatiboak ipiniko dira,

dagokien justifikazio teknikoarekin batera; neurri horien ondorioz, dena den, ezin izango dira jaitsi segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanean edo oinarritzko azterlanean aurreikusitako babes mailak.

Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana kontuan hartuz prestatutako segurtasun eta osasun azterlanen kasuan, proposa litezkeen prebentzio neurri alternatiboek neurrien balorazio ekonomiko bat eramango dute; neurrien ondorioz, dena den, ezin izango da jaitsi ez zenbateko osoa eta ezta azterlanean jasotako babes mailak ere. Sozietateak onartuko du enpresa esleipendunak prestatutako segurtasun eta osasun plana, aurrez obretako segurtasun eta osasun koordinatzailearen edo zuzendari fakultatiboaren txostena jaso ondoren, koordinatzailearen esku-hartzea beharrezkoa ez denean, obrei ekin aurretik.

Kontratatik segurtasun eta osasun plana aldatu ahal izango du kontuan hartuz obraren egikaritze prozesua, lanen eboluzioa eta obrek irauten duten bitartean sor litezkeen aldaketak, eta aldaketa oro espresuki onartua izan beharko du aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Obra egikaritzen parte hartzen dutenek, obren egikaritzapenean prebentzio arloan erantzukizunak dituzten pertsonak edo organoak eta langileen ordezkariak bidezkoak iruditzen zaizkien iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izango dituzte idatziz eta arrazoituta. Horretarako, segurtasun eta osasun plana obran egongo da horien guztien eskura, eta baita zuzendari faktultatiboaren eskura ere.

Obra ez da hasiko, aurrez Gipuzkoako Urak, SA sozietateak Segurtasun eta Osasun Plana onartu ez badu.

16. ARRISKU ETA MENTURA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta kontratatik ez du eskubiderik izango kalte-ordainetarako obretan izandako galerengatik, matxurengatik edo kalteengatik. Kontratatik indemnitzatu egin beharko ditu obrak egikaritzeko egin beharreko lanek hirugarrenei sor lekizkiekeen kalteak.

17. ASEGURUAK

1.A.- Erantzukizun Zibileko Asegurua

Esleipenduna izango da lurzoruaren barruko edo ondoan dauden pertsonari, animaliei edo gauzek eragindako galera, kalte, lesio edo eragozpen guztien erantzule bakarra, guztiz edo partzialki amaitutako edozein indusketa, eraikin edo egituraren barruan edo kanpoan, leku horretan edo horren ondoan.

Obra burutzeko, esleipendunak kontratuaren xede den obraren exekuzioaren ondorioz hirugarrenei eta haien ondasunei eragindako kalteen ondoriozko erantzukizuna estaltzen duen Erantzukizun Zibileko Asegurua izan beharko du.

Aseguru honen indarraldiak, gutxienez, egin beharreko obren iraupena eta mantentze-aldia estali beharko ditu Esleipendunak eskaintzen dituen exekuzio epeen eta bermearen arabera. Urtero berritu daitezkeen polizen kasuan, aseguru-kontratuaren berritze bakoitza egiaztatu beharko da aipatutako baldintzak bete arte, nolahi ere, gutxienekoak dira eta Kontratatik bere interes hoberenaren arabera luzatu ahal izango ditu.

Kontratatu beharreko gutxieneko bermeak honako hauek izango dira:

Esplotazioa.

Hodietan eta inguruetan kalteak.

Ordainketa Teknikari Profesionala.

Berezko Langileen eta/edo Azpikontraten lan-istripua. (Patronala/Gurutzatua)

Istripuzko kutsadura.

Egindako lana (berme-aldirako).

Defentsa eta bermeak.

GIPUZKOAKO URAKentzat egin beharreko lanarekin bat etorri behar da , eta Aseguratzailleak horretarako emandako berariazko ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko du eta zeinak poliza ordainketan eguneratuta dagoela frogatu beharko du, baita eguneratutako polizaren baldintza partikularren eta berezien kopia. Egin beharreko lanak «eraisketak eta/edo eraisketak», «leherketak» eta/edo «aurretik existitzen diren egitura-elementuei eragina» egitea badakar, jarduera horiek polizan eta ziurtagirian espresuki bermatuta daudela adierazi beharko da, baita horretarako emandako ziurtagiria ere.

Istripu bakoitzeko kalte-ordainaren muga ezingo da gutxieneko 1.500.000€ baino txikiagoa izan , lan-istripu batean biktima bakoitzeko gutxieneko 600.000€-ko azpimuga batekin. Lanekoak ez diren istripuen ondoriozko kalte pertsonalengatiko erreklamazioek ez dute inolako azpimugarik izan behar.

Poliza horrek berariaz jaso beharko du, kontratu honen xede diren lanetarako, GIPUZKOAKO URAKen Aseguratu Gehigarriaren izaera, hirugarren izaera galdu gabe, bai eta esku hartzen duten azpikontratatisten Aseguratu Gehigarriak ere.

1.B.- Arrisku Oroko Eraikuntzaren Asegurua:

Obrak burutzeko, Esleipendunak Arrisku Oroko Eraikuntzako Asegurua izan beharko du, obrako kontrataren BEZik gabeko aurrekontuaren batura aseguratuarekin, eta bertan Aseguratu gisa GIPUZKOAKO URAK, Esleipenduna, parte hartzen duten azpikontrata desberdinak eta zuzendaritza fakultatiboa, laguntza teknikoa, eta horren kostua Kontratistak hartuko du bere gain osotasunean.

Polizaren iraupena obraren exekuzio-epeari gehi berme-epeari dagokiona izango da, eta behar izanez gero, lanen aurrerapenaren arabera luzatu ahal izango da.

Kontratutako estaldura honako hau izango da:

a) Sute, tximista, leherketa, lapurreta, arpilatze, inpaktu, gaitasun eza, arduragabekeria, bandalismo eta ekintza maltzurren, naturaren arriskuen eta/edo izendatzen ez den beste edozein arriskuren ondoriozko kalteak.

b) Honetatik eratorritako berme osagarriak:

- Diseinu akatsen ondorioak.
- Diseinu propioaren akatsa.
- Aparteko orduen gastuak, hondakinak garbitzea, eraispena, agintaritzak hartutako neurriak.
- Itzaltzeko, hondakinak garbitzeko eta eraisterako gastuak.
- Lanbide-kuotak.
- Lehendik zeuden ondasunetan kalteak (berritze edo handitze lanetan soilik).
- Greba, matxinada eta zalaparta zibila.
- Terrorismoa.
- Eraikuntzako ekipoak.
- Galerak prebenitzea eta murriztea.
- Mantentze-lan handia (berme-aldirako).

1.C.- Ingurumen edo kutsadura arriskuak:

Espedienteko obren eta obren Baldintza Espezifikoaren Pleguan berriaz hala eskatzen den kasuetan, esleipendunak aseguru-poliza bat izan beharko du, bai Kode Zibilaren arabera egotz daitekeen Kutsaduraren Erantzukizun Zibila, bai Ingurumen Erantzukizuna, indarrean dagoen Ingurumen Legeriari egotz dakizkiokeen Natur Baliabideei egindako kalteengatik.

Poliza honek 1.500.000€ -ko gutxieneko muga izan behar du eta GIPUZKOAKO URAK Aseguru osagarri gisa sartu beharko du hirugarren izaera galdu gabe, aurreko ataletan aurreikusitako gainerako betekizun espezifikoak ere aplikagarriak izanik.

1.D.- Klausula komuna:

Esleipendunak konpromisoa hartzen du, kontratu honetan oinarrituta, bere aseguratzaileei jakinaraztea berak edo bere azpikontratistek egindako lanaren ondorioz gertatu den edozein gorabehera edo erreklamazio, GIPUZKOAKO URAK-ek hala eskatzen badu eta GIPUZKOAKO URAK-i esandako froga fidagarria emateko, baita Aseguratzaileak fitxategiari esleitutako erreferentzia, hori guztia aseguru-polizetako klausulen arabera egin beharko liratekeen gainerako komunikazioez gain.

Era berean, esleipendunak indarrean eta eguneratuta eduki beharko ditu kontratatzeke nahitaezkoa izan behar duten aseguru guztiak, legezko, sektoreko betekizunengatik edo bestelako arrazoiengatik. Horrela, honako hauek aipatzen ditugu, baina ez mugatu gabe: ibilgailuen zirkulazio aseguru, istripu eta/edo bizitza aseguru.

Esleipendunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko beharrezkoak diren materialak, ekipoak eta erremintak garraiatzeko aseguru-gastuak, bai eta parte-hartzaileetako edozeinen makineria, ekipamendu, eraikuntza bitarteko, behin-behineko eraikuntza-instalazio eta salgaien kalteengatik ere, efektu pertsonalak barne. Ondorioz, Esleipendunak berariaz eta guztiz salbuetsi egiten du GIPUZKOAKO URAK-en aurkako erantzukizun-akzio oro, ondasun horiek kaltetu edo galtzeagatik.

Aipatutako aseguru guztiak kontratatzeak ez ditu mugatuko esleipendunak kontratuko gainerako xedapenen arabera bere gain hartzen dituen betebeharrak eta erantzukizunak.

Esleipendunak adierazitako aseguru kontratatzeke, bizirauteko eta primak ordaintzeko dituen betebeharrak betetzen ez baditu, GIPUZKOAKO URAK-ek azken honen izenean egingo du, kasu horretan bertan erabilitako zenbatekoak konpentsatzeko baimena emanegindako lanen ziurtagiriek bere gain hartuz.

Obren exekuzioari ekin baino lehen, Esleipendunak sinatutako polizen kopia bat bidaliko dio GIPUZKOAKO URAK -ri, baita obraren estaldura espezifikoaren egiaztagiria eta ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ordainagiria ere.

Beraz, esleipendunak honako konpromisoa hartzen du:

a) Aseguruaren atalean adierazitakoa guztiz betetzea.

b) Kontratutako aseguruaren baldintzen arabera ordaindu beharreko prima guztien ordainketak egunean egotea. Igortzea, GIPUZKOAKO URAK-ek eskatuz gero, ordainketa

guztien polizen eta ordainagirien kopiak eta berritzeen kasuan, ordainagirien eta berritzeko baldintzen kopiak.

c) Polizetako baldintzak eta zehaztapenak betetzea eta bere esku dagoen edozein neurri hartzea poliza baliogabea izan ez dadin edo polizetan ezarritako baldintzak eta zehaztapenak ez betetzeagatik gertakariren bat indemnizatua izan ez dadin.

d) Edozein gorabehera jakinaraztea, bai bere kabuz bere polizetan ezarritako eskakizunen arabera, bai GIPUZKOAKO URAK-ek hala eskatzen duelako, eta ardua handiz jokatzeko gorabehera hori konpontzeko eta hari dagozkion kalte-ordainak kaltetuak kobratzeko.

Nolanahi ere, aseguru ezberdinen frankizien zenbatekoa, bai eta aseguru-poliza ezberdinetan ezarritako mugak gainditzen dituen erreklamazioen zenbatekoa ere, esleipendunaren kontura izango da. Era berean, hirugarrenei kalte-ordainak eta bertan jasota ez dauden lanen kalte-ordainak, edozein arrazoirengatik, esleipendunaren kontura izango dira.

Kontratistari ezarritako betebeharrak hark kontratatutako azpikontratistei hedatzen zaizkiela ulertzen da, eta, ondorioz, kontratistak horiei guztiei laga behar dizkie.

18. OBRAREN ZUINKETAREN EGIAZTATZEA

Obren zuinketaren egiaztapena astebeteko epean egingo da gehienez ere, kontratua sinatzen denetik hasita, ohiko tramitatze espedienteetan. Obrari ekiteko, zuinketaren egiaztapenaren akta eman beharko da.

Zuinketaren egiaztapenaren ondorioz eta obren zuzendariaren iritziz, proiektua egokia eta bideragarria dela frogatzen denean eta lursailen edukitza eta xedapen erreala daudenean eta kontratistaren erreserbarik gabe, baimena emango da obrekin hasteko. Baimen hori argi eta garbi adieraziko da aktan eta kontratistari jakinaraziko zaio akta sinatu duelako. Obrak egikaritzeko epea akta sinatu den egunaren biharamunetik hasiko da.

Bestela, hau da, aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzen ez badira edo, teknikari fakultatiboaren iritziz, proiektatutako obrak aldatzea beharrezkoa bada edo kontratistak erreserbak egiten baditu, aktan idatzita jasoko da etenda geratzen dela obren hasiera harik eta kontratua sinatu zuen organoak bidezkoa iruditzen zaion erabakia hartzen duen arte, betiere legeriak kontratazio administratiboaren arloan emandako ahalmenen barruan.

19. LAN PROGRAMA

Kontratistak lan programa aurkeztu beharko du hamabost egun balioduneko epean, adjudikazioa argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Sozietateak erabakiko du

lan programaren inguruan; aldaketak sartzeko edo preskripzio jakin batzuk betetzeko agindu dezake, kontratuko klausulen kontrakoak ez badira betiere.

Datu hauek azaldu beharko dute lan programan:

- Proiektua osatzen duten unitateak obra zatietan edo motetan antolatzea, unitateen neurriak jarrita.
- Behar diren bitartekoak zehaztea, hala nola pertsonala, instalazioak, ekipoa eta materialak, horien batez besteko errendimenduak jarrita.
- Egutegiko datak ipintzea prestaketa obrak edo eragiketak gauzatuko diren epeetarako, ekipoa eta instalazioak eta obren zatiak edo motak gauzatzeko.
- Programatutako obraren hileko balorazioa eta balorazio metatua, kontuan hartuta prestaketa obrak edo eragiketak, ekipoa eta instalazioak eta obrako zati edo unitateen prezio unitarioak jarrita.
- Jardueren edo lanen diagrama.
- Plan hori esleipendunak aurkeztuko du eta kontratuari buruzko dokumentazio izango da ondorio guztietarako.

KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUTIK ERATORRITAKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Obrak, egikaritu, Agiri honetako klausulei, horren oinarri den proiektuari eta kontratistak aurkeztutako lan programari estu-estu lotuta egikaritutako dira, lan programa idatzi duenak, hau da, obra zuzendariak hura interpretatu eta kontratistari emandako jarraibideen arabera. Horiek guztiak bete beharrekoak izango dira, baldin eta idatziz jakinarazten badira.

Obrek iraun bitartean, eta berme epea bete arte, kontratista izango da eraikuntzan ager litezkeen akatsen erantzule.

Obrak erabat geratu edo behin betiko eten, arrazoi larri bat baldin badago bakarrik geratu edo etengo dira eta Organo Kontratatzailearen erabakiz. Obren zuzendaria izango da Organo Kontratatzailearen ordezkari.

Lan betebeharrak betetzea. Kontratistak lan, Gizarte Segurantzza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.

Kontratistak organo bat sortu beharko du, lan segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden xedapenak betetzen direla ziurtatuko duen organoa alegia, eta

segurtasuneko teknikariak izendatuko ditu, lantoki bakoitzeko segurtasun betebeharez arduratuko direnak.

Kontratatistak betebeharrak ez baditu edo berak izendatutako segurtasuneko teknikariek segurtasun xedapenak urratzen badituzte, administrazio kontratatzaileak ez du horregatik inolako erantzukizunik izango.

Bulegoa obran. Obrei ekin aurretik, kontratatistak obra bulego bat instalatu beharko du egokiena iruditzen zaion lekuan, betiere zuzendariaren onespenerekin, eta bulegoa kontratua betetzen ari den denbora osoan mantendu beharko du.

Aginduen liburua. Bulegoan, kontratatistak ezinbestean gorde beharko ditu proiektuaren edo kontratuaren oinarri proiektuaren kontratuari buruzko dokumentazioaren kopia baimendua eta aginduen liburua. Horretarako, Gipuzkoako Urak, SA sozietateak dokumentu horien kopiak emango dizkio kontratatistari zuinetaren egiaztapena egin aurretik.

Aginduen liburua obra atxikita dagoeneko Zerbitzuak aurrez bideratuko du eta bertan bidezkoak iruditzen diren aginduak, jarraibideak eta komunikazioak jasoko dira, Zerbitzuaren sinaduraz baimenduz. Kontratatistak, bere kabuz edo ordezkariaren bidez, jarraibideak hartu izanaren agiria sinatzera behartuta dago. Obren harrera eginda, aginduen liburua Gipuzkoako Urak, SA sozietatearen eskuetara itzuliko da; kontratatistak, dena den, une oro kontsultatu ahal izango du liburua.

Gastuak enpresa kontratatistaren kontura. Bereziki, kontratatistaren kontura izango dira materialen gastuak, haren pertsonalaren gastuak eta zuinetaren egiaztapena egiteko behar diren Administrazioako ordezkarien gastuak.

Kontratatistaren kontura izango dira gestioak eta gastu, tasa, ariel... guztien ordainketa egitea eta dagozkion organismoetan aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta proiektu horien bisatua lortzea, funtzionamendurako alta eta baimena eskuratzeko, sare eta zerbitzueen krokadura lortzeko, behin-behineko eta behin betiko hartuneak egiteko eta, oro har, instalazioek behar bezala eta legez funtzionatzeko behar den guztirako.

Seinalizazioa. Kontratatistak seinale zehatzak instalatu beharko ditu obrako sarbidea, lanek hartzen duten eremuko zirkulazioa eta obrak direla-eta arriskua egon litekeen gunek seinalatzeko, obren eremuan, mugetan eta inguruetan.

Seinaleak bi hizkuntzetan egongo dira (euskaraz eta gazteleraz). Gainera, obrei buruzko iragarki, kartel edo informazio oro ere bi hizkuntzetan egon beharko du. Kontratatistak betebeharrak ez badu, zigor ekonomikoak ezarriko dira:

1. ez-betetzea 600 €

2. ez-betetzea 1.200 €

Gainerakoetan 2.400 €

Kontratistak Zuzendaritzaren aginduak beteko ditu; seinale osagarriak instalatzeko edo instalatuta dauzkanak aldatzeko idatziz ematen dizkion aginduak, alegia. Kontratistak ordainduko ditu seinalizazioak dakartzan gastuak.

Materialen entseguak eta analisiak. Kalitate kontroleko aurrekonturik ez duten kontratazio espedienteetan, obren zuzendariak agindu dezake materialen eta obra unitateen entseguak eta analisiak egiteko eta kasu bakoitzean bidezkoak diren txosten espezifikoak idazteko, eta kontratistaren kontura izango dira sortzen diren gastuak kontratuaren adjudikazio aurrekontuaren %2ra arte.

Obra unitateak ordezkatzeari. Kontratistak Zuzendaritzari proposatu ahal izango dio, beti idatziz, obra unitate jakin baten ordezkaldintza hobeak dituen beste bat ipintzea, modu arduratsuan prestatutako edo kontratatutako materialen kalitatea baino hobea duten materialak erabiltzea, obrako edozein zati neurri handiagoekin egikaritzea edo, oro har, obrarako mesedegarri dela uste duen antzeko beste edozein hobekuntza.

Baldin eta obra zuzendariari kontratatutako hobekuntza, beharrezkoa izan ez arren, bidezkoa iruditzen bazaio, zuzendariak idatziz baimendu ahal izango dio proposatutako hobekuntza kontratatutakoari, baina kontratatutako ez du horregatik inolako kalte-ordainetarako eskubiderik izango, obra kontratatutakoari estu-estu lotuta eraiki izan balu legokiokeena kobratzeko eskubidea baino ez du izango.

Alderantziz, obra zuzendariari beharrezkoa iruditzen bazaio kontratatutako hobekuntza, obra kontratuak aldatzeko ezarritako moduan jardungo da.

Obrak kontserbatzea. Kontratistak obrak egikaritu ez ezik zaindu ere egin beharko ditu haien harrera arte.

Kontratistaren erantzukizuna ez da bakarrik obran ager daitezkeen akatsengatik, obra unitateen kontserbazio bidegabeak edo akastunak soilik eragindako akatsengatik ere bada, nahiz eta akats horiek zuzendariaren aldetik aztertuak eta onartuak izan, eraiki eta berehala edo kontratuaren indarraldiko beste edozein unetan.

Obrak dirauten bitartean, kontratatutako eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsengatik erantzungo du, bermearen epea bete arte.

Etxebizitzak, lokalak eta finka partikularrak eskuratzea. Baldin eta, obrak egikaritzeko, finka partikularren sarbideak obrari lotu behar badira, sarbide horiek beti egon beharko dute erabilgarri, behar bezalako segurtasun baldintzetan eta ahalik eta erosotasun handienarekin erabiltzaileentzat.

Kasu berezietan eta interesdunei aurrez komunikatuta eta entzunda, sarbide horiek aldi baterako moztu daitezke, betiere mozketa finkaren erabiltzaileek beren gain har baldin badezakete.

Obrak garbitzea. Obra eremua eta bere ingurua behar bezala garbituta egongo dela bermatuko da; dena den, ez zikintzea izango da helburua. Horretarako, behar diren bitartekoak edukiko dira, hala nola ibilgailuak garbitzeko sistemak, hautsik ateratzen ez duten ebaketa sistemak edo zoladurak biltegi barruan moztuz... Eta, zikintzen bada, egunero garbituko da hesitu gabeko obra eremua eta ingurua.

21. AZPIKONTRATATZEA ETA KONTRATUA LAGATZEA

21.1 AZPIKONTRATATZEA

Kontratatistak hirugarrenekin itundu ahalko du prestazioaren parte bat ematea, klausula honek eta SPKLko 215. artukuluak xedatutakoari lotuta.

Kontratatistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, bai eta azpikontratatzailearen izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura egikaritzeko, dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia aipatuta, eta egiaztatuta azpikontratista horrek ez duela kontratatzeko debekurik 71. artikuluari jarraituta.

Kontratatista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Baldin eta azpikontratatistak azpikontratatu den kontratu atala egiteko sailkapen egokia badu, hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratatistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahalko da, baldin eta azpikontratatzea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Kontratatista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango azpikontratatistek, eta hark bereganatuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa kontratua administrazio-klausula partikularren agiriei edo deskripzio agiriari eta kontratuaren baldintzei estu-estu lotuta egikaritzeko; horren barnean egongo da 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak betetzea.

Entitate kontratatzaileak, kontratista nagusiak egin diren azpikontratuen berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun eskusiboan.

Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak egiteko eta ordainketa horiek egiaztatzeko, SPKLko 216 eta 217. artikuluek xedatutakoa hartuko da kontutan.

21.2 LAGATZEA

98. artikuluan kontratistaren ondorengotza dela-eta ezarritako kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa soilik izango da posible kontratu lagapen baten bitartez, betiere klausula honetan ezarritako mugen barruan.

Kontratua lagatzeko, SPKLko 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira. Hona hemen baldintza horiek:

- Kontratazio organoak berriaz eta alde aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena. Baimen hori hurrengo letretan aurreikusitako baldintzak betetzen badira emango da. Baimen eskaerari buruzko ebazpenaren jakinarazpenerako epea bi hilabeteko izango da; epe hori iraganda, administrazio isiltasunez eman dela iritzi beharko zaio.
- Lagatzaileak kontratuaren 100eko 20 gutxienez egikarituta izan behar du, SPKLko 214.2 b) artikulua xedatzen duen moduan.
- Lagapen hartzaileak Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, kontratua egikaritzeko fasearen arabera eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, ez dio eragin behar kontratatzeke ezein debekuk, SPKLko 214.2 c) artikulua xedatzen duen moduan.
- Esleipendunaren eta lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLko 214.2 d) artikulua xedatzen duen moduan.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztien subrogazioa jasoko du lagapen hartzaileak.

22. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

Obra zuzendariak aurreko denboraldian egikaritutako obra unitateak neurtuko ditu aldiro-aldi eta preskripzio tekniko partikularren Agiriak xedatutako moduan eta baldintzetan.

Aldaketak geroan behin betiko ezkutaturik geratuko diren obra unitateak hartzen dituenean, haien neurketa partziala egin baino lehen, kontratistak obra zuzendariari eman

beharko dio horren berri, egin beharreko neurketak egin eta hartu beharreko datuak har ditzan, guztiaren planoak eginez, eta horiei onespena kontratistak edo haren ordezkariak emango die. Kontratistak, obra zuzendariari abisatu ezean, Gipuzkoako Urak, SA sozietatearen horren inguruko baldintzak onartu beharko ditu.

Obra zuzendariak, aipatutako neurketak eta kontratatutako prezioak oinarritzat harturik, dagokion hasierako zerrenda zenbatetsia idatziko du hilero, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 148. artikuluaaren arabera.

Zerrenda zenbatetsia tramitatzen ari den aldi berean, obra zuzendariak ale bat bidaliko dio kontratistari, onar dezan edo eragozpenak adieraz ditzan. Kontratistak egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu 10 egun balioduneko epean, aipatutako dokumentua jasotzen duenetik hasita.

Epea igaro eta kontratistak alegaziorik aurkeztu ez badu, zerrenda zenbatetsiari bere onespena eman dioela ulertuko da.

Bestela eta kontratistaren alegazio guztiak edo batzuk onertzen badira, onartutako alegazioak kontuan izango dira hurrengo zerrenda zenbatetsia idazterakoan edo azken ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan.

Ordainketarako, obra zuzendariak zerrenda zenbatetsiaren araberrako ziurtagiriak emango ditu. Ziurtagirietan, obra egikarritua azalduko da eta obra horren ordainketak konturako ordainketak izango dira, azken neurketen ondorioz zuzedu eta aldatu daitezkeenak. Ordainketa horiek egiteak, dena den, ez du esan nahiko inola ere ziurtagirietako obrak onartzen eta hartzen direnik.

Obra zuzen egikaritzeko eta burutzeko egin behar diren lan eta erabili behar diren baliabide lagungarri eta material guztiak obraren prezioan sartuta egongo dira, nahiz eta haiek guztiak ez azaldu xehe-xehe zehaztuta prezioen xehakapenean edo deskibapenean.

Beren kontzeptuengatik zeharkako kostuen antzekoak diren gastu guztiak proiektuko obra unitateen prezioetan sartuko dira, baldin eta aurrekontuan zenbatetsita agertzen ez badira obra unitateetan edo oroharreko partidetan.

Kontratistak ez du eskubiderik izango eginiko prestaketa lanei dagozkien zenbatekoen konturako ordainketak jasotzeko, hala nola obrari atxikitako materialen edo makineria ekipo astunen instalatze edo metatze lanei dagozkien konturako ordainketak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 155, 156 eta 157. artikuluetako araubide, muga eta bermeen arabera.

23. ESLEIPENDUNAREN EZ-BETETZEAK

Esleipendunak kontratu honetan edo gainerako kontratuari buruzko dokumentazioan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, esleipendunak eragindako kalte edo galerengatik kalte-ordain egokiarekin.

Baldin eta adjudikazioa jakinarazten denetik 30 egun natural igaro eta, kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, obrei ekin ez bazaie, Gipuzkoako Urak, SA sozietateak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsitu edo zigorra ezarri, hain zuzen ere 1.000€ ASTEAN obrak atzeratu diren aste bakoitzeko.

Era berean, Gipuzkoako Urak, SA sozietateak beste zigor hau ere ezar diezaiokie esleipendunari: ADJUDIKAZIO AURREKONTUAREN %2a eurotan + 1.000 € ASTEAN obra zuzendariak bere eskumenekoak diren gaiei buruz emandako jarraibide edo arauak esleipendunak betetzen ez dituen bakoitzeko. Zigor hori zigor klausula metagarria izango da, esan nahi baita, kopuru horiek kobratzeko eskubidea sortuko da egon litezkeen kalte-galerengatik kalte-ordainak alde batera utzita eta, bestela, kendu egingo dira obren likidazioan.

Baldin eta eskaintzako epeak kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez badira, Gipuzkoako Urak, SA sozietateak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsitu edo aurreko paragrafoan adierazitako zigorrak ezarri.

Bi aldeek onartu egiten dituzte adostutako zigorrak eta uko egiten diote zigorrak leuntzea eskatzeari, ekitatiboak eta egokiak iruditzen zaizkielako kontratu honetako inguruabarrak kontuan izanda.

24. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLko 205. artikulua xedatzen dituen kasuetan (prestazio gehigarriak, aurrez sumatu ezin diren inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak).

Aldaketak adosteko prozeduran jarduketak hauek egongo dira: (i) kontratuaren arduradunaren txostena, non zehaztuko diren aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak, aldaketaren eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa, dauden inguruabarrak eta inguruabar horien presentziaren egiaztapena; (ii) kontratistari entzutea; (iii) txosten juridikoa; (iv) aldaketa agiria sinatzea; (v) aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratzea.

Ez dira aldaketatzat hartuko:

(i) neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean

egiten hasierako kontratuko prezioaren %10etik gorako gastu igoera gehiegizko neurketak. Neurketa gehiegizkoak obraren azken ziurtagirian jasoko dira.

(ii) Prezio berriak sartzea, kontraesanez finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obraunitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

25. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko. Onartutako eskaintza prezioak berrikusi gabe egongo da indarrean kontratuaren indarraldi guztian.

26. PREZIOAK

Kontratua onartzeak esan nahi du bi aldeek onartu egiten dituztela kontratistak partida bakoitzerako eskainitako prezio unitarioak. Ustekabekoak gertatzen badira, Gipuzkoako Urak, SA sozietatearen Prezio Unitarioen Oinarrian adierazitako prezio unitarioak aplikatuko dira, kontratistak obra honetarako eskainitako % beherakada aplikatuz.

Kontratua sinatzen denetik obrak amaitzen diren arte ezingo da inolako aldaketarik ezarri jarritako prezioetan.

KONTRATUA AMAITZEA

27. OBRAK HARTZEA

Kontratistak edo bere ordezkariak idatziz komunikatuko dio zuzendari fakultatiboari obra amaitzea aurreikusten den data, hamabost egun baliodun lehenago, obraren harrera egin ahal izateko.

Obra zuzendariak, kontratistaren komunikazioarekin ados baldin badago, Gipuzkoako Urak, SA sozietateari igorriko dio komunikazioa, bere txostenarekin, obraren amaiera data baino 10 egun natural lehenago, Sozietateak ordezkari bat izenda dezan obraren harrerarako eta kontu-hartzaileari komunika diezaion, aginduzkoa denean, egintza horretara joan dadin inbertsioa egiaztatzeko eginkizunak betetzera.

Harrera egintza obrak amaitu eta hurrengo hilaren barruan egingo da eta kontratistak obra zuzendariari jakinaraziko dio. Harrera egintzaren akta jasoko da eta akta egintzan izan diren guztiek sinatuko dute.

Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera egin badira, Sozietatearen teknikariak eta ordezkariak hartutakotzat joko ditu, harrera akta egingo da eta orduan hasiko da berme epea.

Alabaina, obrak ez badaude hartzeko moduan, halaxe adieraziko da aktan eta adieraziko dira obra zuzendariak sumatutako akatsak, eta beharrezko diren jarraibideak ere zehaztuko dira, bai eta akatsak zuzentzeko epe bat ere. Aipatutako epea igarota kontratistak ez baditu oraindik zuzenketak egin, bi aukera izango dira orduan: beste epe bat eman, luza ezinezkoa, edo kontratua suntsiarazi.

28. BUKAERAKO ZIURTAGIRIA

Behin obrak hartuta, obren neurketa orokorra egingo da segidan kontratista bertan dela, eta obra zuzendariak proiektuaren arabera benetan egikaritutako obren neurketari ekingo dio, harreratik hilabeteko epean. Horretarako, obra zuzendariak neurketak hasteko data finkatuko du harrera aktan, eta data hori kontratistari jakinaraziko zaio bera ere ekitaldira joan dadin.

Neurketa orokorra egiten den egunean, kontratistak dokumentazio hau entregatu beharko du:

- Planoak paperean eta formatu digitalean, AutoCADen proiektuaren kartografiaren gainean, egikaritutako hornidura eta/edo saneamendu eroanbideak zehaztasunez azalduz (maldak, materialak, diametroak, sakonera), indarrean dagoen Araudi Teknikoak definitutako eskakizunekin.
- Elementu bakoitzaren informazio fitxak, Gipuzkoako Urak, SA sozietatearen GISen zuzen digitatzeko behar den informazioarekin.
- Oinplanoaren planoak paperean eta formatu digitalean, eginiko katen kokalekuekin; zerbitzuekin eta/edo obraren neurketa orokorra egiteko unean bistan ez dagoen beste edozein obra unitaterekin dauden gurutzaketak ere agertu behar dute planoetan.
- Irudiak (argazkiak): eginiko laginketak eta zerbitzuekin eta/edo obraren neurketa orokorra egiteko unean bistan ez dagoen beste edozein obra unitaterekin dauden gurutzaketak.
- Beste edozein deskripzio agiri, obrak zuzen egikaritu direla egiaztatzeko.

Obra bukaerako ziurtagiria urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 166. artikulua arabera egingo da.

Obrak zuzen, hau da, Proiektuaren edo, bestela, indarrean dagoen Araudi Teknikoaren arabera egikaritu direla egiaztatu ondoren, Gipuzkoako Urak, SA sozietateak sareen Behin Behineko Harrera egingo du. Horretarako, hau eduki behar da:

- Obran sortutako eraikuntza eta eraispén hondakinak zuzen kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Sareak behin-behinean hartzeak ez du jarritako bermea betetzetik salbuesten eta, beraz, hornidura eta saneamendu sareetan detektatutako akatsak esleipendunaren kontura zuzendu beharko dira bermealdian.

29. BERME EPEA

Behin berme epea igarota, sareen Behin Betiko Onarpena egingo da, akats aipagarriarik ez badago. Berme epea urtebetekoa izango da, kontrako estipulazio espresurik ez badago (administrazio publikoetako kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren arabera).

Berme epea amaitu aurreko hamabost eguneko epe barruan, obra zuzendari fakultatiboak, bere kabuz edo kontratistak halaxe eskatuta, txosten bat egingo du obren egoerari buruz. Txosten hori aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotatik libre geratuko da, SPKLko 244. artikulua xedatutakoa salbu.

Txostena ez bada aldekoa, eta ikusitako akatsak obrak egitean agertu badira eta ez eraikitakoa erabiltzean, zuzendari fakultatiboak, berme epeak dirauen bitartean, dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako, epe bat jarriko dio, eta, epe horrek dirauen bitartean, kontratistak izango du obrak kontserbatzeko ardura, eta ez du eskubiderik izango berme epea luzatzeagatik dirurik jasotzeko.

30. OBRAK LIKIDATZEA

Behin berme epea igarota, obra zuzendariak obren egoerari buruz eginiko txostena aldekoa izan bada edo, hala ez bada izan, eraikitakoa konpondu ondoren, zuzendariak egiazki gauzatutako obren inguruko likidazio proposamen bat prestatuko du hilabeteko epean; obrak baloratzerakoan, kontratuak xedatutako baldintza ekonomikoak hartuko ditu kontutan. Likidazio proposamena kontratistari jakinaraziko zaio, hark hamar eguneko epean bere onospena eman diezaion edo egoki irizten dituen eragozpenak adieraz ditzan.

Kontratistak erantzuten duenetik edo kontratistari erantzuteko emandako epea igarotzen denetik hirurogei eguneko epe barruan, Kontratazio Organoak onartu egingo du likidazioa eta, hala behar badu, hari dagokion saldoa ordaindu.

31. BERMEAK ITZULTZEA

Berme epeak iraun bitartean kontratistak nolahi ere obren kontserbazioa eta zaintza artatuko du Agiri honen eta obra zuzendariak eman litzakeen jarraibideen arabera. Kontserbazioa artatu ez eta obra arriskuan jarriko balitz, Gipuzkoako Urak, SA sozietateak egin beharreko lanak egingo lituzke kontratistaren kontura, kaltea saihesteko.

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta, berme epea amaitu eta gero, bermearen kontra gauzatu beharreko erantzukizunik agertzen ez bada, bermea itzultzeko edo abala ezerezteko erabakia hartuko da, haren berme epea amaitu eta gero.

32. EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA

Berme epea amaitu eta gero, obra hondatu egiten bada edo bere eginkizunarekin bateraezinak diren narriatze larriak baditu kontratistak kontratua bete ez duelako eta horren ondorioz eraikinak ezkutuko akatsak dituelako, kontratistak hamar urtez erantzun beharko die, obra hartzen denetik kontatzen hasita, sortzen edo agertzen diren kaltegalerei.

33. JURISDIKZIO ESKUDUNA ETA LEGE ESPARRUA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordena izango da eskuduna kontratuen prestaketari, adjudikazioari, ondoreei, aldaketari eta azkentzeari buruzko auziak ebazteko, horiek aurkaratzearen oinarria SPKLko 204 eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea denean, pentsatzen delako kontratuak berriz adjudikatu behar zirela egindako aldaketa horiek zirela eta.

Hala badagokio, adostasun errekurtsua aurkeztuko da Gipuzkoako Ur Kantsortzioa - Consorcio de Aguas de Gipuzkoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera

Jurisdikzio ordena zibilia izango da eskuduna aldean artean kontratuaren ondoreei eta azkentzeari buruz sortzen diren gatazken inguruan. Hemen ez dira sartzen klausula honetako lehen paragrafoan aipatzen diren kontratu aldaketak.

Kontratuak izaera pribatua du eta kontratuaren prestaketa baldintza ekonomiko administratibo partikularren Agiri honek eta Egikaritze Proiektuak gobernatuko dute eta adjudikazioa baldintza ekonomiko administratibo partikularren Agiri honek, Egikaritze Proiektuak eta, horiek aurreikusten ez dituzten gauza guztietan, SPKLn horretarako xedatutako arauak (nolahi ere, kontratu honi ez zaio aplikatuko otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretua eta ez zaizkio inolaz ere aplikatuko, ezta ere, SPKLk erregulazio harmonizatuko kontratuentzat bakarrik xedatzen dituen arauak, zortzigarren xedapen

gehigarriko 2. puntuak xedatutakoaren arabera. Aipatutako errege lege dekretuaren bidez, presako neurriak onartu ziren Europar Batasuneko hainbat zuzentzauren transposizioa egiteko Espainiako ordenamendu juridikora).

Haren ondorioei eta azkentzeari dagokienez, baldintza ekonomiko administratibo partikularren Agiri hau, Egikaritze Proiektua eta, horiek aurreikusten ez dituzten gauza guztietan, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira. Dena den, kontratuari SPKLko 319. artikulua "Ondoreak eta azkentzeari" buruz xedatzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.

Horrez gain, SPKLa eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikatuko dira Agiri honek testu arauemaile horietara bidaltzen gaituen guztietan. Errege dekretu horren bidez, administrazio publikoetako kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartu zen.

Nolanahi ere, kontratua Estatuko eta Europar Batasunaren araudien pean izango da datu pertsonalen babesari dagokionez.

34. DATU PERTSONALEN BABESA.

Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna da GIPUZKOAKO URAK, S.A (IFZ: A-20471462), helbide eta email hauek dituena: Portuetxe kalea, 16 (Blanca Vinuesa eraikina) 1. - 20018 - Donostia/San Sebastián eta lopd@gipuzkoakour.eus

Zure datuak tratatzen ditugu kontratatzailearen profilean izena eman duten pertsonen zerrenda kudeatzeko, hain zuzen ere Gipuzkoako Urak, SA sozietateak enpresa adjudikatzaile moduan irekitako kontratazio espedienteetan parte hartzeko asmoz inskribatutakoen zerrenda kudeatzeko, eta enpresa lizitatzailiek aurkeztutako proposamenetan sartutako pertsonen datuak kudeatzeko, lege betebeharrekin konplizte aldera (datuen babeserako Erregelamendu Orokorreko 6.1 c artikulua); zehatzago esanda, sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 Legeko eta otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuko betebeharrekin. Errege lege dekretu horren bidez, presako neurriak onartu ziren kontratazio publikoaren inguruko Europar Batasuneko hainbat zuzentzauren transposizioa egiteko Espainiako ordenamendu juridikora.

Emandako datu pertsonalak solil-soilik komunikatuko zaizkie tratamendu honen arloan aplikatu behar diren legez ezarritako erakundeei, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

Datu pertsonalak dituzten lizitazio eta kontratazio espedienteak gorde egingo dira harik eta adjudikazio prozesuak eta horietatik eratorritako jarduketak amaitzen diren arte; gero, blokeatu egingo dira, eta blokeatuta egongo dira izan litezkeen erreklamazioen erabilerari edo aplikatu beharreko tributu legeriakoei buruzko preskripzioei dagokien

denboran. Datu blokeatuak eskuratzea mugatuta egongo da, baimendutako pertsonak bakarrik eskuratu ahal izango dituzte.

Edonork du eskubidea egiaztatzeko GIPIZKOAKO URAK, SA sozietatea norberari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari den eta bere datu pertsonaletara sartzeko. Eskubidea du, halaber, datu okerrak zuzentzeko eskatzeko edo, bestela, ezabatze eskatzeko, besteak beste beharrezkoak ez direlako jaso ziren helburuetarako.

Zirkunstantzia jakin batzuetan, pertsona interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eska dezakete eta, hala eginez gero, erreklamazioak erabili edo defendatzeko bakarrik gordeko dira ditugun datuak.

Zirkunstantzia jakin batzuetan eta beren egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik, pertsona interesdunek beren datuen tratamenduaren aurka egin dezakete. Halakoetan, GIPIZKOAKO URAK, SA sozietateak datuak tratatzeari utziko dio, nola eta premiazko arrazoi legitimorik edo aurkez edo defenda litezkeen erreklamaziorik ez dagoen.

Pertsona interesdunek eramangarritasunerako eskubidea izango dute, esan nahi baita, eskubidea izango dute GIPIZKOAKO URAK, SA sozietateari helarazitako datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko, beren kabuz deskargatzeko edo GIPIZKOAKO URAK, SA sozietateak beste entitate bati bidaltzeko.

Pertsona interesdunak bere eskubideak erabil ditzake. Horretarako, eskaera bidali behar du *supra* adierazitako posta helbidera edo helbide elektronikora. Eskaera egiteko inprimaki eredu du gure web orriko pribatutasun gunean: www.gipuzkoakour.eus.

Pertsona interesdunari iruditzen bazaio bere eskubideak behar bezala artatuak ez direla izan, eskubidea du erreklamazioa aurkezteko datuen babeserako agentzia eskudunari.

Datuak tratatzerakoan, konfidentziasuna eta neurri tekniko eta antolamentuzko egokiak aplikatuko dira, datuak aldatu, galdu eta baimenik gabe tratatu ez daitezzen eta inor baimenik gabe datuetara sartu ez dadin.

I- Eranskina - Erantzukizunpeko adierazpena.

[...] and./jn. (NAN: [...] eta helbidea [...]), bere izenean edo [...]ren izenean, hau betez: [...], (helbidea [...] eta NAN edo IFZ: [...]), gaitasun juridiko eta jarduteko osoak izanik eta [...]ren lizitazioaren jakitun egonik, hau da egiten duen

ADIERAZPENA

Lehena. – Eskaintza hau aurkezten duen egunean guztiz betetzen dituela Gipuzkoako Urak, SA sozietatearekin kontratatzeke legeriak xedatzen dituen baldintzak eta baldintza ekonomiko-administratibo partikularren Agiriak eskatzen dituen baldintzak.

Bigarrena. - Eskaintza hau aurkezten duen egunean behar diren baimen guztiak dituela kontratuaren xede den jardueran jarduteko.

Hirugarrena. - Eskaintza hau aurkezten duen egunean ez dagoela azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikulua kontratatzeke xedatzen dituen debekua izateko kausaren batean. Legeak sektore publikoko kontratuak arautzen ditu eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauen transposizioa egin zuen espainiar ordenamendu juridikora.

Laugarrena. - (*atzerriko enpresa izanez gero*). Espainiako edozein ordenatako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, kasua suertatuko balitz, lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egingo liokeela.

Bosgarrena. – Espresuki onartzen duela entitate kontratatzaileak gardentasun instituzionala aplikatzea obra guztiz lizitatu, adjudikatu eta, esleipendun izanez gero, egikaritu eta amaitzen den arteko prozesuari lotu dakizkiokeen datuei. izitazio, adjudikazio eta, esleipendun izanez gero, egikaritze prozesuak hasten direnetik amaitzen diren arte sortutako datu guztiei.

Seigarrena. – Ondorengo bitarteko hau lehenesten duela entitate kontratatzaileak lizitazio hau dela-eta bidal lezakeen edozein jakinarazpen jasotzeko:

- Posta elektronikoa:

[.....]n, [.....](e)ko [.....]ren [.....](e)(a)n.

[Sinadura]

II- Eranskina - Abal eredia.

[...] entitateak (kreditu erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izena), (IFZ: [...] eta helbidea [...]) (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) eta, bere izenean, [...] (ahalordedunen izenak eta abizenak), nahikoa ahalordearekin ekitaldi honetan entitatea behartzeko, agiri honen behealdeko ahalorde askietsien arabera, honi ABALA EMATEN DIO: [...] (abalatuaren izena eta abizenak edo sozietate izena) (IFZ: [...]), [...]ren aurrean, [...] euro, [...] kontratutik sortutako betebeharrei erantzuteko.

Entitate abal emaileak adierazten du, bere erantzukizunpean, betetzen dituela administrazio publikoetako kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartu zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 56.2 artikulua xedatzen dituen eskakizunak. Abal hau solidarioki ematen da obligaziodun nagusiarekiko, espresuki uko eginez eskusio eta zatiketa onurari eta [...]ren lehenengo errekerimendua ordainduko duela aginduz.

Abala indarrean egongo da harik eta GIPUZKOAKO URAK, SA sozietateak ezerezteko edo itzultzeko agintzen duen arte.

[.....]n, [.....](e)ko [.....]ren [.....](e)(a)n

[Sinadura]

III- Eranskina – Kauzio seguruko ziurtagiriaren eredua.

Ziurtagiri-zk.: [...]

[...] entitateak (aurrerantzean, aseguratailea), (helbidea: [...] eta IFZ: NIF [...]), [...] behar bezala ordezkaturia (ahalordedunen izenak eta abizenak), nahikoa ahalordearekin ekitaldi honetan entitatea behartzeko, agiri honen behealdeko ahalorde askietsien arabera,

ASEGURATZEN DIO

[...]ri (NAN [...]), aseguru hartzaile gisa, [...]ren aurrean (aurrerantzea, aseguraturia), [...] euro arte, aintzat hartuz sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 107 artikulua, legea garatzen duen araudiak eta [...] kontratua gobernatzen duen baldintza administratibo partikularren Agiriak xedatzen dituen terminoak eta baldintzak, behin betiko berme gisa, [...] kontratutik sortutako betebeharrei erantzuteko.

Aseguraturia adierazten du, bere erantzukizunpean, administrazio publikoetako kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartu zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 57.1 artikulua xedatzen dituen eskakizunak. Prima ez ordaintzeak —bakarra izan, lehenbizikoa izan edo ondorengoak izan— ez dio asegurataileari eskubiderik emango kontratua azkentzeko; aseguraturia ez da azkenduko, aseguraturaren babesa ez da etengo, eta aseguratailea ez da aske geratuko bermea ordaintzeko betebeharetik, berak ordaindu behar badu bermea.

Asegurataileak ezingo ditu baliatu aseguradunaren kontra aseguru-hartzailearen kontra legezkiokkeen salbuespenak.

Asegurataileak bere gain hartzen du aseguraturari kalte-ordainak ordaintzeko konpromisoa lehenengo errekerimenduan.

Kauzio seguru hau indarrean egongo da harik eta GIPUZKOAKO URAK, SA sozietateak ezerezteko edo itzultzeko agintzen duen arte.

[...]n, [...] (e)ko [...]ren [...] (e) (a)n.

[Sinadura]

Aseguratailea

PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO – ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DEL PROYECTO

SUSTITUCION SANEAMIENTO ARABA KALEA 5 - ZARAUTZ

ZARAUTZ

1. OBJETO DEL CONTRATO

Actualmente, y aprovechando los trabajos que el ayuntamiento prevé realizar en la plaza Martintxo que queda entre las calles Araba y Altzola, se prevé renovar la red actual de saneamiento que se encuentra en mal estado, por una nueva red separativa. De esta manera se consigue una red separativa además de solucionar las posibles filtraciones existentes en la actualidad.

2. DOCUMENTACIÓN

1. DOCUMENTOS CONTRACTUALES

Resultan de carácter contractual los siguientes documentos que obran en el proyecto:

Pliego de condiciones económico-administrativas

Pliego de prescripciones técnicas

1_ MEMORIA_

ANEJO 1 EBSyS

ANEJO 2_ SSAA

ANEJO 3_ EGR

2_ PLANOS

3_ PPTP

AT 2020 - 8 ARG Eusk.pdf

RT 2020 - EDIC 8ª cast.pdf

4_ PRESUPUESTO

Base_Precios_GUK

2. CONDICIONES ESPECIALES DE CONTRATO

G. Sobre HOMOLOGACIÓN y CONVENIOS:

Antes de la adjudicación definitiva se deberá proceder a la homologación del contratista como tal conforme a los criterios de Gipuzkoako Urak, S.A. (en adelante GUSA), con formalización de carta de compromiso sobre:

- **FORMACION del PERSONAL.**
- Cumplimiento del vigente **CONVENIO COLECTIVO de la CONSTRUCCION y OBRAS PUBLICAS de Gipuzkoa** o del convenio de empresa que haya indicado el adjudicatario en caso de que mejore las condiciones del referido convenio de Gipuzkoa.
- **TRANSPARENCIA INSTITUCIONAL** a todos los datos derivados asociables al proceso de licitación, adjudicación y ejecución total de la obra hasta su finalización.

H. Sobre ABONOS:

Las unidades de obra se abonarán de conformidad con las mediciones formalizadas al respecto una vez ejecutadas en su totalidad, y de conformidad con el precio de adjudicación.

Para conceptos de unidad no previstas en proyecto y si procediese, se aplicarán las existentes en la «**base de precios**» **adjunta al presente pliego** con la baja de adjudicación licitada, en caso contrario y para IMPREVISTOS y NUEVOS CONCEPTOS se procederá a su determinación de manera contradictoria y negociada previo a su ejecución.

El abono se hará por certificaciones parciales mensuales de obra ejecutada, dejándose para la liquidación un importe superior al 30% del importe liquidatario previsto.

I. Sobre PLAZOS:

Las obras se iniciarán 30 días naturales posteriores a la comunicación de la adjudicación, y terminarán dentro del plazo de ejecución acordado en oferta. El incumplimiento de plazo será objeto de penalización económica, y objeto de su consideración en posteriores adjudicaciones.

J. Sobre SEGURIDAD y SALUD LABORAL:

Se deberá observar el cumplimiento de las medidas observadas en el Plan de Seguridad y **NORMATIVA** de aplicación correspondiente, y en particular lo referenciado en:

- el CHECK-LIST de seguimiento de cada obra. (con penalización económica por incumplimiento de objetivos)
- la aplicabilidad de KOORDINATU al personal ejecutor de la obra.

K. Sobre IGUALDAD DE LA MUJER Y EL HOMBRE:

El contratista deberá cumplir los principios y obligaciones establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

L. Sobre GESTIÓN de RESIDUOS:

Se deberá observar el cumplimiento de las medidas observadas en la NORMATIVA de aplicación correspondiente, y en particular lo referenciado en:

- el CHECK-LIST de seguimiento de cada obra.

La firma del presente contrato implica la conformidad y aceptación por el Adjudicatario de sus Condiciones y del resto de documentos que lo acompañan.

3. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El presupuesto base de licitación de las obras asciende a la cantidad de **78.076,12** €. En el mencionado precio, se entienden contemplados todos los conceptos INCLUIDO el Impuesto sobre el Valor Añadido.

El valor estimado del contrato asciende a 64.525,72 euros (IVA excluido), calculado en la forma y a los efectos previstos en el artículo 101 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante, LCSP).

4. CAPACIDAD ECONÓMICA SUFICIENTE

Gipuzkoako Urak dispone de capacidad económica suficiente para asumir el gasto correspondiente.

5. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

